

Biloba

Egun batean, neska gazte bat eskolarantz zihoan bere pentsamenduetan murgildurik, eta bat-batean soineko zuri polit bat eta jaka gorri bat zeramatzan neska txiki batekin topo egin zuen. Espaloian eserita zegoen, triste eta atsekabetuta.

Neska berandu iritsi zen eskolara, eta aurrera jarraitzeko tentazioa izan zuen, baina neskatoaren _____ hunkitu egin zuten. Gelditu egin zen, zer _____ zitzaion galdetu zion, eta honek _____ egin zela esan zion.

Ezin zuen han utzi, _____, masailetakoko malkoak garbituz, kontsolamenduzko hitz batzuk esan eta etxera lagunduko ziola agindu zion. Azken finean, berandu iritsiko zen eskolara arrazoi on batengatik.

Non _____ zen ba ote zekien galdetu zion, eta neskatoak bakarrik jakin zuen esaten bere etxeak urte osoan loreak zituen gereziondo bat zuela sarreran. Neska gazteak zehazki jakin zuen zein etxe zen. Merlin zaharrarena, bere adats luze zuriagatik deitzen zioten horrela.

Neskari etxeko ateraino lagundu zion eta han _____ esan zion. Eskolara korrika itzuli zenean, neskatoaren jaka soinean zuela konturatu zen, eta, arratsaldean, Merlin zaharraren etxera hurbildu zen hura _____. Atea jo eta agure bat irten zen, begirada nekatu eta patxadatsuz:

- Zer galdu zaizu gazte?

- Zure bilobaren jaka ekarri dut, nik lagundu diot gaur goizean etxera, galdu egin da eta, espero dut ondo _____.

- Nire biloba? Duela urte asko _____ zen, Halloween gauean bere soineko zuriarekin eta jaka gorriarekin jolastera irten zen, eta ez zen inoiz _____ itzuli.

1. Norantz zihoan neska?

2. Neskaren soinekoa gorria zen eta jaka zuria zen? EGIA - GEZURRA

3. Non zegoen eserita neska txikia?

4. Nor da neska txikiaren aitona?

5. Noiz hil Merliren biloba?